

Gure taldearen jardunean denbora luzea emon dogu azken urteetan Urdaibaiko koba eta lezeen katalogoa prestetan, eta orain amaitzen gabilz. Horren barruan, besteak beste, garrantzi handia emon deusagu leku-izenak ondo jasoteari. Horretan genbilzala, konturatu gara Busturialdean ohikoak diran edo izan diran berba batzuk gaur egungo euskeran berreskuratzeke edo zabalteke ahalegin osoa egin behar dogula. Oraingoan, pare bat berbaren kontua aitatu dogu.

Poto (gaztelaniazko dolina itzultzeko): Espeleologian zein geografian edo geologian eten barik agertzen da dolina, kare haitza dagoan inguruetan sortzen diran sakonuei deitzeko. Euskera batuan neologismoak erabilten dira hori itzultzeko: lutogune, sakonune, dolina, eta abar. Halanda be, hemengo artadiak (Ibarrangelu, Elantxobe, Ereño, Nabarniz, Arteaga, Kortezubi) potoz beteta dagoz: gaztainadiko potoa, panaderuna potoa, Gerandako potoa, eta abar. Bertako jendeak gaur egun era arruntean esaten dauan berbea da. Hasiera baten uste genduan lokala zala, bakarrik hemengoa, baina, ikerketa txiki bat egin ostean konturatu gara mendebaleko euskera egiten dan leku zabalean (Bizkaian eta Gipuzkoako Debagoienan) pota edo antzeko berbak esaten dabezala: Orozkon pottola esaten da, Aretxabaletan pota, Oñatin potolo edo potoska. Bistakoa da guzti horreek pota-tik eratorriak dirala.



Gauza bitxia bada be, *poto* berbearen zentzu hau ez da agertzen inongo euskal hiztegitan, salbuespen oso bakan batzuk gorabehera. Espeleologiatik abiatuta, hitz honen erreskate beharra ahal danik eta zabalen egin behar dala uste dogu. Gure aldetik hasita gagoz horretan, erakunde batzuetako jendeari informazioa pasatuz: Euskal Herriko Unibertsitatean, eta Euskal Herriko espeleologoak batzen dituan Euskal Espeleologia Elkargoan.

Santi Urrutia

Geure berbie euskeraz

Ades
Agiri Elkartea
Aiuri
Alargunen Elkartea
Andra Mari Korala
Arkupe Pilota Taldea
Arrano Kultur Elkartea
AVIFES
Bake Leku
Bakearen Arbola
Barrutialde Antzerki Taldea
Busturialdean Euskeraz
Ehiztari, Arrantzale eta Tiratzaileen Elkartea
Elai Alai Dantzari Taldea
Elizbarrutiko Karitas
Emakide, Gernikako Emakume Elkartea
Gaudeamus Korala
Gazteak Kultur Taldea
Gernika Futbol Sala
Gernika Off Road
Gernika Racing Elkartea
Gernika Saski Baloi Elkartea
Gernika Sporting Futbol Taldea
Gernika-Lumoko Merkatar Elkartuak
Gernikako Arku-Tiroketa Elkartea

Gernikako Arte Eskola
Gernikako Bertsolari Eskola
Gernikako Ekologi Lan Taldea
Gernikako Rugby Taldea
Gernikatik Mundura
Gernikazarra Historia Taldea
Goizale
Goizeko Izarra Gazte Taldea
Hilargi Lore
Ideagur
leup Gazteen Elkartea
Kosnoaga Gazte Taldea
Makatz Iturri Taldea
Makazaga Musika Alkartea
Musikeder
Odlkideak
Ostargi Abesbatza
S.D. Gernika Club
Sociedad Ciclista Gernikesa
Tiris Gernika Sahararen Alde
Urdaibaiko Perretxikozaleak Elkartea
Urdaibaiko Rugby Eskola
Urdaibikers Motorzaleen Elkartea
Zantzoa Euskal Kultur Elkartea
Zine Kluba

Enpresak

Aita Villasante Udal Euskaltegia
Akelarre Ostataua
Algelek S.L.
Argi Ola Elektrizitatea
Arronategi Pinturak
Arroyo Banaketak
Bengozarra Eraikuntza Metalikoak
Casmarco, S.L.
COR S.L. Gestoria
Gernika Esklusibak
Gernika Garbiketak
Gernika Inmobiliaria
Gondra Abaroa Aseguruak
Gorra Bulkanizatuak
Intxausti S.A. eraikuntzak
Irazabal Ardautegia
Izagirre Eraikuntza, S.A.
Illunzar.
Jose Luis Kristaldegia
Macias Inmobiliaria
Mallukiza Aroztegia
Nager Arostezia
San Isidro Kooperatiba
Sanjo Inox tailerra
Sortalde Energia Altermatiboak
Talleres Sanjo tailerra
Zaunka produkzioak



15 DENDA BARRI!!

Aurton beste 15 merkatarik sinatu dabez euskerearen aldeko konpromisoak, eta, ganera, sinatu bezain laster aldaketak egiteari ekin deutsee. *Omago Dietetikak*, esate baterako, erakusleihoko errotulu nagusiak ele bietan jarrita daukaz, *Zallo Harategiak* be barruko errotuluak aldatu dauz, *Izaskun Egurrola* ileapaindegiak eta *Urdaibai Informatikak* ordutegia eta itxita eta zabalik errotulua ipini dabez, eta *Bronceariumek* euskarazko errotuluak jarri dauz.

Honako honeek dira hitzarmen-kide barriak: *Bidaguren Gozotegia*, *Zubialde Okindegia*, *Zallo Harategia*, *Donibane albaitaritza*, *Pedro Bilbao Gozotegia*, *Izaga Ileapaindegia*, *Izaskun Egurrola Ileapaindegia*, *Balart*, *Omago Dietetika*, *Uranga*, *Nere Kabia*, *Blue Velvet*, *Broncearium*, *Urdaibai Informatika* eta *Copicolor*.



UMM..! EUSKERAZ GOXO-GOXO

Aurreko urteetan eukitako harrera ona ikusita, aurton be, Gernika-Lumon, euskera sustatuteko kanpaina egin da. Bagilaren 26tik garagarriaren 1era bitartean hitzarmen-kideak diran enpresa eta dendetan "Euskeraz erostea eskubide goxoa" lelopean txutxuak eta napolitanak banatu dira. Horrezaz ganera, aitatuak kanpainearen ganeko informazioa diptiko baten bidez zabaldu dogu.

Txutxuak, euskera bultzatuteko konpromisoak hartu dabezan herriko 6 gozotegik egin dabez, Ares dastalekuak, Omago Gozotegiak, Bidaguren Gozotegiak, Zubialde Okindegiak, Pedro Bilbao Gozotegiak eta Saraspe Okindegiak hain zuzen be.

Kanpaineri garagarriaren 1ean emon deusagun amaierera merkatu plazako azoka berezian.


Al igual que los años anteriores, el servicio de Euskera del Ayuntamiento de Gernika-Lumo y el servicio de euskera Artez, han desarrollado la campaña de promoción del uso del euskera bajo el lema "Euskeraz erostea eta saltzea eskubide goxoa". Dicha campaña se ha llevado a cabo desde el 26 de junio hasta el 1 de julio. En los establecimientos que han firmado los compromisos a favor del euskera se han repartido txutxus y caramelos junto con el diptico que daba a conocer la ley del consumidor.



EUSKERAZ BEHAR EGITEKO TRESNA GUZTIAK

Enpresa Txikiak lan handia egiten dabilz euskerearen alde. Daukiezan komunikazioetan aldaketak egiten dabilz apurka apurka, eta konpromisoa hartu dabenen kopurua be gorantza doa urteak pasau ahala. Aurten 28 enpresa dagoz “Merkataritza Euskalduntzen” kanpaina, igaz baino 3 enpresa gehiago. Honako honeek dira hitzarmena sinatu dabena: Zaunka Produksioak, Illunzar Eraikuntzak eta Akelarre Ostataua.

Euskerea enpresa munduan sartzeko eta hizkuntza horretan behar egiteko konpromisoa hartu dabenei euren helburuak lortuteko behar dabean bitarteko guztiak emoten jakez. Euskarazko ikastaroetara joateko aukerea, (zerotik hasita zein merkataritzara zuzendutakoak), on-line ikastaroak, itzulpenak, hiztegiak eta beste hainbat laguntza.



Orain arte sarbidea eduki dabenei helbide guztiak www.euskaraplanak.net web gunearen bilduta daukiez orain: www.ikasare.net (euskaraz behar egiteko ikastaroa), www.agiriak.net agiri estandarrek eskuratzeko helbidea eta zelan ez hiztegiak. Hiztegia izenek atalean, enpresek berben bilaketak egin daikiez. 14.000 berbatik gora dagoz hiztegian, eta arloka banatuta dago, 98 arlotan hain zuzen. Eta horrezaz ganera www.hiztegiak.net -era sartzeko aukerea daukie.

GERNIKA GARBIKETAK SM: 3 URTERAKO EUSKERA PLANA

Gernika Garbiketak enpresak urte asko daroaz Merkataritza Euskalduntzen Kanpaina parte hartzen. Lan munduan euskerearen presentziaren beharria kontuan hartuta, hitzarmena sinatu ebanean hartu ebazan konpromisoak betetzen ahaleginduten da egunetik egunera. Erronka handia izan arren, apurka-apurka aurrerapauso garrantzitsuak emon dabez.

Azken urteotan enpresa asko hazi da, eta hartutako konpromisoei eskainitako arreta aintzat hartuta, Euskera Plan zehatzagoa aurrera eroatea erabagi dau.

Orain arte, batez be bulegoetako beharginen esku egon da euskerearen erabilera areagotzea enpresan, baina orain enpresako sail guztiek parte hartuko dabe. Urtean bete beharreko helburuak gehiago eta zehatzagoak dira eta sail guztietako beharginen esku egongo da euskerearen erabilera handitzea. Hori guztia posible izan daitean, behar lain bitarteko ipiniko dira.

Alkarrizketea: Manu Idoyaga, Gernika Garbiketak SM enpresako zuzendaria

- Urte batzuk pasau dira Merkataritza Euskalduntzen kanpaina hasi zinenetik, ze aldaketa ikusi dozu urte horreetan?
- Orokorrean esan beharko geunke gehien dendetan igarri dala, kartelak eta orriak jarrita dagoz bai kanpoan eta bai barruan be.

- Zer begitandu jatzu Udalak 3 urterako Euskera Plana proposatutea?
- Ondo ikusten dogu, ganera epe luzerako plana izatean helburuak lortuteko eta honeetara egokitutuko errezaduna emoten da. Izan be, dagoaneko zenbait jarduera aurrera eroaten hasita gagoz.

- Zelan ikusten dozu bulegoko beharginen eta zuzendaritzaz ganera beste beharginak be euskeraz egiten bultzatutea eta horretarako laguntzak emotea?
- Orena litxake, baina oraindino zalantzak daukaguz laguntza hori zelan onartuko dan, izan be, askotan ikasteko gogoia egon egoten da, baina egun osoan behar egin ostean, gogorra izaten da eskoletara joatea.

- Zein da ikusten dozun oztopo nagusia enpresa munduan euskerea normalizatuteko?
- Gaur egun hainbat atzerritar dagoz gizartean eta askotan ez honek ezta berton jaiotako biztanle askok ez dabe ahaleginik egiten euskerea ezagututeko, eta horren ondorioz hemen jaiotako euskaldun askok ezin dogu nahi beste erabili.

- Zer esango zeunskie oraindino dana gaztelaniaz egiten dabenei saltoki eta enpresei?
- Ez dago eskubiderik, hain gatxa da “egun on” eta “agur” esatea? Leku batzutan negargarria da oraindino “adios” edo “buenos dias” entzutea, batez be hemen jaiotako jentearen ahotik.



MOTORZALEAK EUSKEREAREN ALDE

Alkarteek kanpo komunikazioari garrantzia emoten deutsee, eta karteelaz ganera, aldizkariak argitaratuten dabez urtean zehar. Alde horretan be euskereari garrantzi handia emoten deutseea aitatu behar dogu. Urdaibikers Motorzaleen Alkarteak, esate baterako, hilero euskera hutsez argitaratuten dau aldizkaria.

Horrezaz ganera kirol alkarte batzuk euren instalazioetako errotiluzinoan aldaketak egin dabez, besteak beste, Gernika Klubak intalazino barrietan errotiluak euskeraz ipini dauz.

Udalak “Geure Berbie euskeraz” kanpainearen bidez, web gunea sortzeko edo euskeraz ipinteko laguntzea emoten dau eta alkarteek laguntza hori eskertzen dabela ikusten gabilz azken hileetan. Izan

be, web gunea daukien alkarte batzuk euskeraz jarri dabe dagoaneko. Gernika Saskibaloi Alkarteak, esate baterako, web orria bi hizkuntzatan jarrita dauka, gaztelaniaz zein euskeraz sartzeko aukerea emoten deutsee saskibaloi zaleei. Ganera asteko partiden krokinak be euskeraz ipinten dabez irakurgai. Gernika Racingek be ele bietan dauka web orria. Beste hainbat, barriz, sortuten dabilz.

Bi izan dira konpromisoak sinatu dabeezan alkarte barriak, Urdaibikers Motorzaleek Alkartea eta Ideasur. Horrenbestez, 51 alkarte dagoz “Geure Berbie Euskeraz” kanpainearen barruan.



SUBVENCIONES PARA DESARROLLAR LAS PÁGINAS WEB EN EUSKERA

Día a día estamos viendo que para las asociaciones tiene mucha importancia la comunicación de cara al público y que el euskera está cada vez más presente. Como ejemplo tenemos la revista mensual URDAIBIKERS y las instalaciones deportivas de Gernika Kluba entre otros.

Mediante la campaña “Geure Berbie Euskeraz” realizada por el Ayuntamiento de Gernika-Lumo las asociaciones disponen de subvenciones para poder desarrollar su página web en euskera o bilingüe, lo cual ha tenido muy buena aceptación por parte de las asociaciones como Gernika Saski Baloi, Gernika Racing, Gaudeamus Korala, Gernika Rugby Taldea, etc.

